



HEZKUNTZA ESKAINTZA AIARALDEAN

*Edukiz eta publizitatez
osatutako gehigarri berezia*

Eskola publikoak

AIARALDEKO Eskola Publikoa

- 2018/2019 IKASTURTEA -



MATRIKULA EPEA: URTARRILAREN 29TIK OTSAILAREN 9RA

ARTEKO GURE AMA HERRI IKASTETXEA	URDUÑA HERRI IKASTETXEA	ZABALEKO IKASTETXEA	ZARAIBE INSTITUTUA	LUCAS REY HERRI IKASTETXEA	ETXAURREN IKASTOLA
  IRAKASKUNTZA: ✓ Udal Haurreskola (0-2 urte) ✓ Haur Hezkuntza (2-5 urte) D eredu ✓ Lehen Hezkuntza (6-12 urte) D eredu ZERBITZUAK: ✓ Eskola garraioa ✓ Jantokia ✓ Sukaldea ✓ Ordenagailu gela ✓ Ingelesa 4 urtetik gora ✓ Musika 4 urtetik gora ✓ Goizeko 8etatik haurtzaindegia ✓ Liburutegia ✓ Talde psikopedagogikoa ✓ Eskolaz kanpoko ekintzak eta osagarriak ✓ Kirol instalazioak eta berdeguneak ✓ Psikomotrizitatea (Haurreskolan eta Haur Hezkuntzan) PROIEKTUAK: ✓ IKT Heldutasun 2. maila ✓ Elkarbizitza ✓ Zientzia - Hezkuntza (Haur eta Lehen Hezkuntzan) ✓ Kontzientzia fonologikoa (Haur Hezkuntzan) ✓ Bikoteka irakurtzen (Lehen Hezkuntzan) ✓ Matematika Tailerra (Lehen Hezkuntzan) La Bárcena, 1 ARTZINIEGA Tel.: 945 396 046 - Fax: 945 396 520 email: 010010aa@hezkuntza.net www.artekogureama.com	  IRAKASKUNTZA: ✓ Haur Hezkuntza D eredu (2-5 urte) ✓ Lehen Hezkuntza D eredu (6-12 urte) ZERBITZUAK: ✓ Doako eskola garraioa ✓ Jantokia ✓ Informatika (gela guztietan) ✓ Ingelesa 4 urtetik gora ✓ Musika 4 urtetik gora ✓ Liburutegia (eskola eta eskolaz kanpoko orduetan) ✓ Eskolaz kanpoko ekintzak eta osagarriak ✓ Psikopedagogia laguntza ✓ Goizeko gela PROIEKTUAK: ✓ Agenda 21 ✓ Elkarbizitza proiektua ✓ Elkarbizitza proiektua (elikadurari buruzko hezkuntza programa) ✓ Euskararen Normalkuntzarako Proiektua ✓ Ikasketa kooperatiboa ✓ Eleaniztasuna San Francisco, 3 URDUÑA Tel.: Fax: 945 383 504 email: 014379aa@hezkuntza.net	  IRAKASKUNTZA: ✓ Haur Hezkuntza D eredu (2-5 urte) ✓ Lehen Hezkuntza D eredu (6-12 urte) ZERBITZUAK: ✓ Jantokia ✓ Eskola garraioa ✓ Talde multiprofesionala ✓ Gela guztiak informatizaturik ✓ Informatika gela ✓ Ingelesa 4 urtetik gora ✓ Musika 4 urtetik gora ✓ Kirol instalazioak ✓ Ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak ✓ Bikoteka irakurtzen ✓ Kulturartekotasuna ✓ Ortu ekologikoa PROIEKTUAK: ✓ Agenda 21 ✓ IKT: Prestakuntza informazio eta komunikazioaren arloko teknologia berrietan S. Jose Auzoa AMURRIO Tfn.: 945 890 462 - Fax: 945 891 724 email: 010003aa@hezkuntza.net	  HEZKUNTZA ESKAINTZA: ✓ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza DBH (B eta D ereduak) ✓ Gela egonkorra ✓ Batxilergoa (D eredu) ✓ Heziketa Zikloak ✓ Oinarriko Lanbide Heziketa ZERBITZUAK: ✓ Jantokia ✓ Eskola garraioa ✓ Kirol instalazioak ✓ Orientazio akademiko profesionala PROIEKTUAK: ✓ Aniztasunaren trataera ✓ Agenda 21 ✓ Europar proiektuak ✓ Euskararen normalkuntzarako proiektua ✓ IKT heldutasun 2. maila ✓ Berrikuntza proiektuak ✓ Hezikidetzatza Etzebarriaur, 8 AMURRIO Tel.: 945 393 000 - Fax: 945 393 682 email: zaraobe@zaraobe.net www.zaraobe.net - twitter	  IRAKASKUNTZA: ✓ Haur Hezkuntza (2-5 urte) B eta D ereduak ✓ Lehen Hezkuntza (6-12 urte) B eta D ereduak ZERBITZUAK: ✓ Eskola garraioa ✓ Jantokia (bertan eginiko bazkaria) ✓ Teknologia berriak ✓ Ingelesa 4 urtetik gora (INEBI proiektua) ✓ Musika 4 urtetik gora ✓ Ikasleen zaintza 07:45etik ✓ Liburutegia eguerdian ✓ Eskolaz kanpoko ekintzak eta osagarriak ✓ Talde psikopedagogikoa PROIEKTUAK: ✓ Eskola Agenda 21 ✓ Elkarbizitza ✓ Hezikidetzatza ✓ Etwinning: europar proiektua Lucas Rey kalea, 15 Amurrio Tel.: Fax: 945 890 481 email: 010327aa@hezkuntza.net	  IRAKASKUNTZA: ✓ Udal Haurreskola (0-2 urte) ✓ Haur Hezkuntza (2-5 urte) D eredu ✓ Lehen Hezkuntza (6-12 urte) D eredu ZERBITZUAK: ✓ Doako eskola garraioa ✓ Jantokia, bertan eginiko bazkaria ✓ Ordenagailu gela ✓ Kirol instalazioak ✓ Ingelesa 4 urtetik gora ✓ Musika 2 urtetik gora ✓ Liburutegia ✓ Eskolaz kanpoko ekintzak eta osagarriak ✓ Psikomotrizitatea 2 urtetik gora ✓ Hezkuntza premia bereziko baliabideak ✓ Zerbitzu Psikologikoa ✓ Gela egonkorra PROIEKTUAK: ✓ Eskola Agenda 21 ✓ Hezikidetzatza ✓ Bikoteka irakurtzen (Lehen hezkuntza) ✓ Zientzia hezkuntza (Haur hezkuntza eta Lehen hezkuntza) ✓ Aldizkaria Ibagueen auzoa, 1 Zuhatzatza Tel.: 945 39 92 87 - 648759720 - 648759723 - Fax: 945 399 346 email: 010165aa@hezkuntza.net www.etxaurrenikastola.hezkuntza.net

Zaraobe Institutua

Metodologia aldaketa abian dago Zaraobe Institutuan

Eraldaketa metodologikoa da Zaraoben emandenen berrikuntza nagusia. Irakasleen erronka da nagusiki, euren bideratu behar dutena. Urteak daramatzate formazioari berebiziko garrantzia ematen. Konpetentzietan oinarritutako irakaskuntzaren osagaiak ulertzen eta erabiltzen ari dira aurten, *Centros Digitales* eta *Let's Go Trainin* entitateen eskutik: programazio ereduak eguneratuz, erronka multidisziplinarrak prestatuz, baliabide digitalak ezagutuz, ebaluatze prozedura aldatuz... "Bagoaz bada. Norabidea markatuta, urratsez urrats, beti aurrera", adierazi dute.

DBHko esperientziak

Iaz lehenengo esperientzia serioa burutu zuen Zaraobe Institutuak DBH 1. mailako gela guztietan. Talde bakoitzak bi erronkei ekin zien, bien artean ikasgai guztiak uztartuz: mapa interak-

tiboa eta egitura. Guztiz arrakastatsua izan zen "mapa interaktiboa" egitearen erronka. Ikasleek eskualde zehatz batean hainbat "eduki" kokatu behar zituzten: arkitekturen lotutakoak, biologiaren ingurukoak... Aurten esperientzia errepikatuko dute ikastetxean. DBHko beste mailetan ere hainbat proiektu edo erronka egingo dira.

Klaseak egiteko era berria

Ez "klaseak eman" ezta "klaseak jaso". Klaseak edo saioak beste era batean egin behar dituztela dakite Zaraobe Institutuan, eta bide horretan ari dira. Gazteek informazio iturri ugari dituzte, gizartea erabat aldatu da, estimuluen eragina areagotu egin da, familiaren esku hartzea aldatu egin da ere. Eskola egokitu da lana errealtate berri horri erantzunez egiteko.

Lanbide Heziketan aitzindari ETHAZI-Etekin Handiko Zikloak

programan murgilduta egonda, momentuz erronketan oinarritzen du ikaskuntza-irakaskuntza prozesua. Mekanizazio Erdi Mailako Zikloak. Ikasleek, taldetan antolatuta irakasleek planteatutako erronkari erantzuna eman behar diote. Baina prozesua ez da edonola ematen. Grafikoan adierazten dira eman beharreko urratsak: planteamendua, informazioa, alternatibak, proposamenak, jarduerak eta abar. Horiek dira ziklo horretako ikasleek maneiatzen dituzten kontzeptuak.

Beste zikloetan ere erronkak diseinatzeko dira, eta kasu askotan desafio horietan hainbat moduluk hartzen dute parte.

Batzilergo digitala eratzen

Sare Hezkuntza proiektuaren barruan aurtengo asmoa da Batxilergoko 1. mailan baliabide digitalak sortzea edo tresna digital baten bitartez unitate didaktiko bat ikasleekin lantzea.

"Euskararen ezagutza bermatu dugu, erabileran dugu erronka"

JOSEBA IRIONDO BILBAO (LAUDIO, 1963) eta MIREN VITERI SALAZAR (MENOIO, 1963) ZARAUBE INSTITUTUKO IRAKASLEAK DIRA ETA HIZKUNTZA NORMALIZAZIORAKO PLANEAN BURU-BELARRI SARTUTA DAUDE.

Duela 20 urte sartu zineten Hizkuntza Normalizaziorako Planean -HNP-. Nola hasi zineten?

Joseba: Pauso txikiak emanez hasi ginen. Garai hartan sortu genuen Santo Tomas azoka, Gabonetan ikastetxean egiten duguna. Gutun lehiaketa ere garai hartan hasi ginen egiten.

Miren: Gaur egun murgiltze-astea egiten dugu baita ere, lehenengo mailako ikasle berrien harrera egiteko, euskararen presentzia bermatuz. Gure ikasleak EGA azterketa egiteko prestatzen ditugu baita ere.

Zer nolako bilakaera izan du euskararen erabilerak 20 urte hauetan?

Miren: Euskararen ezagutza bermatzea lortu da. Non dago hutsunea? Jende guztiak ikusten duen horretan: erabileran.

Joseba: Ikastetxe guztiek pairatzen duten egoera da hori, jen-

dartean dagoen arazoa da.

Miren: Eskolan egin dezakegun guztia egiten dugu. Horregatik, beste edozein eremutan nola eragin pentsatu behar dugu. Ikerketa sakona egin genuen Aiaraldeko Hezkuntza Foroan, ikasleek euren aisialdian zituzten hizkuntza-ohituren berri izateko.

Joseba: Adinak ere eragina dauka. Gure ikasleak nerabe-

zaroan daude. Bestelako gauza batzuk komunikatu nahi dituzte, eta euskarak ez du betetzen euren bilatzen dutena. Hala ere, zorionez, aldaketa bat ematen da gero. Gertatu izan zait urte batzuk geroago ikasle ohiekin kalean topatu eta euren artean euskaraz hitz egiten ikustea. Pozgarria da hori, zure lanak zerbaiterako balio duela ikusten duzulako.



"Gurasoen parte hartzea beharrezkoa da hezkuntzaren kalitatea bermatzeko"



TXARO DIEGO OTEO eta LUISA CACERES GRAUPERA (ARTZINIEGA, 1968/1962)

ZARAUBE INSTITUTUKO GURASO ELKARTEKO KIDEAK DIRA.

Nola hasi zineten elkartearen parte hartzen?

Luisa: Jende gutxi zegoelako sartu ginen elkartearen.

Txaro: Zegoen taldea jenderik gabe geratu zen eta parte hartzea eskatu ziguten. Osogarrantzitsua iruditzen zaigu institutuan parte hartzea.

Zer eginkizun bete beharko lukete gurasoek ikastetxean?

Txaro: Bitartekari lana egitea da gurasoen funtzioa, irakasleak bakarrik ez egotea, alegia. Institutua eskola baino inpertsonalagoa da, erraz galtzen duzu harremana seme alabekin. Hainbat gai jorratzen ditugu: droga-kontsumoa, jantokia, garraio publikoa...

Uste duzue gurasoak gehiago inplikatu beharko liratekeela?

Txaro: Badirudi gurasoak arazo bat dagoenean soilik interesatzen zaigula ikastetxearekin harremanetan egotea. Gauzak "ondo" doazenean ez gara horrenbeste inplikatzeko.

Luisa: Jendartean dagoen arazoa da. Parte hartze kolektiboa geroz eta txikiagoa da toki guztietan.

Txaro: Denboraren faktorea ere hor dago. Askotan ez gara egin nahi dugun guztia egitera heltzen, baina lehentasunak jartzean dago gakoa.

Hala ere, kontuan izan behar dugu Zaraobe ikastetxe handia

dela, 600 ikasle eta 500 familia baino gehiagok osatzen dutena. Guraso elkartearen 30 familia inguru gaude parte hartzen guztira, baina azken urteetan gorakada bat eman da, gehiago inplikatzeko nahiko gurekin arren.

Ez dugu soilik elkartearen antolakuntzan sartzea eskatzen, egiten ditugun ekintzetara gerturatzea ere bada parte hartze modu bat.

Txaro: Iradokizun postontzia jarri dugu abian, gurasoen ideiak jasotzeko. Edozein proposamen izango da ongi etorria, ez da beharrezkoa elkartearen bileretara etortzea.

Luisa: Garrantzitsua da guraso elkartearen egotea, bestela baliabide asko galtzen direlako. Diru-laguntzak kudeatzen ditugu, gurasoek, norbanako gisa, ezingo lituzketelako jaso. Ikastetxe publikoak dira baliabide onenak dituztenak, eta horiek baliatuta kontaezin ahala ekintza gauzatzen ditugu: bidaia kulturalak, azpiegituren hobetzea...

Beste ikastetxe batzuetan ere egiten dituzte horrelako ekintzak, baina gurasoek dirua jarri behar izaten dute. Guztiek parte hartu ahal izatea bermatzen dugu guk, aukera berdintasuna bultzatuz.

Txaro: Hala da. Kalitatezko hezkuntza publiko nahi badugu funtsezkoa da gurasoak inplikatzeko.

Laudio ikastola

**AMETS
BERRIAK
LANTZEN**



telefonoa:
946726737

**MATRIKULA
ZABALIK**

otsailaren 9 arte



LAUDIO
ikastola
www.laudioikastola.eus

Laudio ikastola

Espazioak eraldatzeari ekin diote, pedagogiaren zerbitzura jartzeko

Zer nolako hezkuntza nahi dugu? Zer nolako espazioak behar ditugu hezkuntza hori garatzeko? Bi galdera horien erantzunak eraikitzeari ekin diote Laudio Ikastolako kideek. Lehen pausoa eman dute dagoeneko: "Plazak" atondu

dituzte Haur Hezkuntzako eraikinetako erdiguneetan, adin ezberdinetako haurrak elkarren artean harremandu daitezen. Eraldaketa-prozesua ikastetxe osora zabaltzeko asmoa dute etorkizunean.



Haur Hezkuntzan egin dituzte lehen moldaketak, baina eraldaketa ikastetxe osora zabaltzea dute helburu. **Laudio Ikastola**

Eraldaketa prozesuan buru-belarri sartua dago Laudio Ikastola, hezkuntza eredu propioan -euskalduna, herritarra eta auzolan eta elkartasunean oinarritutakoa- sakontzeko.

Eraldaketa pedagogikoak espazioak ere birmoldatzea du helburu, hezkuntza prozesuaren zerbitzura jartzeko. Ikastolen Elkartearen aholkularia den Aitor Axperen aburuz, espazio ahalik eta "zabal" eta "dinamikoena" sortzea komeni da, "eta gune horretako altzariak zenbat eta mugikorrago edo moldagarriago izan, orduan eta hobeto". Era berean, toki komunak gartzearen garrantzia nabarmendu du Axpek: "Irakasleak rol hierarkikoa galtzen du bertan, denek dute estatus bera".

Adin ezberdinetako haurrak

Laudio Ikastolan ekin diote dagoeneko lanari. Haur Hezkuntzako eraikinean egin dituzte

lehen berrikuntzak. "Eraikinen erdiguneetan egin ditugu obrak. Gune-komun zirkularrak atondu ditugu, bana pisu bakoitzeko", azaldu dute ikastetxeko ardura-dunek. Azaldu dutenez, umeak elkarrekin egotea ahalbidetuko du egitura berriak eta gurasoek ere erabili ahal izango dute: "Aukera emango diegu denbora tartetatez haurrekin geletan egoteko, eurekin batera ikasten".

Sortu dituzten "plaza" horiek beste gauza bat ahalbidetuko dute baita ere: adin anitzeko haurrak elkarren artean harremantzea. "Umeak gela batetik bestera joan ahalko dira, dituzten interes eta erritmoen arabera". Txokokako antolaketa da planteatzen dutena.

Ikastetxe osora salto

Haur Hezkuntzan hasi dute aldaketa-prozesua, baina ez dute horretara mugatu nahi. "Ikastetxe osoa eraldatzea dugu hel-

Haur Hezkuntzan egin dituzte jada zenbait egitasmo, baina eraldaketa prozesua ikastetxe osora zabaltzea dute helburu

buru, arkitektura pedagogiaren zerbitzura egon dadin".

Izan ere, hasi dira hezkuntza prozesuan aldaketak egiten. "Lehen irakaslearen hierarkian oinarrituta egiten ziren klaseak, ikasleak jakintza-ren hartzaile huts ziren", azaldu du Axpek. Laudio Ikastolan horri buelta ematen hasiak dira dagoeneko, pedagogia pasiboetatik aktiboetara salto egiten ari baitira. "Ikasleak parte aktibo bilakatu dira, 'zuk zeuk sortu' filosofia-ri jarraituz".

Geletatik harago

Horregatik uste dute espazioaren birmoldaketa ezinbestekoa izango dela jada ate joka dagoen hezkuntza ereduaren garatzeko. "Gelak bakarrik ez, espazio komunak eta kanpoko guneak ere didaktikarako erabili behar dira", aldarrikatu du Axpek, "eta, zergatik ez? Baita ingurunea eta herria bera ere".



IKASTOLA GUZTIONTZAT GUNEA: Familiei atea ireki eta egunerokoaren parte sentitu daitezen aukera eman diegu.



ADIN ANITZAK ELKARLANEAN: Espazio komunak adin ezberdinetako haurrek elkarrekin esperimentatzeko aukera zabaltzen dute.



ESKAINTZA PEDAGOGIKOA UGALDU ETA ZABALDU DUGU: Gela eremuaren babesa baliatuta beste espazio batzuetan ikertzeko aukera eskaintzen dugu.



JOLAS AUTONOMOIA. Ikasi eta jolastu batera doazen jarduerak dira, norberak autonomia eta nortasuna bere erritmoan gara ditzan.

Laudio BHI

Ikasle adina ibilbide eta aukera dituen hezkuntza eskaintza, eskura

IES Laudio BHI ikastetxean ez daude berdinak diren bi ikasle. Bakoitzak bere ibilbide propioa marrazten du, hezkuntza zentroak eskaintzen dituen tresna eta aukerak baliatuta.

IES Laudio BHI ikastetxeko eskaintza zabala eta anitza da. 50 urte baino gehiagoko ibilbidea du zentroak, eta 1981etik ikasketak D ereduan egin daitezke: DBHko lau mailak, Aniztasun currikularren 3. eta 4. mailak eta Batxilergoko hiru modalitateak (Zientziak, Arteak eta Giza Zientziak).

Liburuetatik harago

Laudio Goiko zentroan Oinarrizko Lanbide Heziketa ikasketak (Ile-apainketa eta Estetika) eta Estetika eta Edergintza Erdi mailako zikloa eskaintzen dira A ereduan. ZIG (Zeregin Ikaske-

ta Gela) eta Gela Egonkorra daude hezkuntza premia berezieta-ko ikasleentzat.

Ikastetxeko Orientazio mintegiak eta Zuzendaritza taldeak elkarlana egiten dute urtero ikastetxeetako tutoreekin batera, eskolatik instituturako aldaketa ahalik eta erosoena izan dadin ikasleentzat. Aurtengo ikasle berri batzuek aipatzen dutenez, “oso aldaketa handia da, irakasle berriak eta lagun berriak aurkitzen ditugulako” eta “ordutegiaren antolaketa ezberdina denez, lan erritmoa bizkortu egiten da”.

IES Laudio BHIko helburu ga-

rrantzitsuenetarikoa da erakustea ikasgeletan irakasten diren edukiak ez direla bakarrik liburutetan idatzita daudenak. Izan ere, zeharkako edukiak lantzen dira ikasturtean hainbat programeiesker, maila guztietako ikasleentzat ezinbestekoak direnak: heziketa emozionala (IZEKI), giza eskubideak eta indarkeria (ZINHEZBA), menpekotasunen prebentzioa (SASOIA), trafiko arriskuak (“Don’t be dummy”)...

Ikasleek oso modu positiboan baloratzen dituzte ekimen horiek: “Gure ibilbidean laguntzeko oso baliagarriak dira, arazoei aurre egiten ikasteko”.



Hezkuntza eskaintzaren berri eman die Amurrioko Udalak familiei

Errolda ziurtagiria etxera bidali die baita ere, aurrematrikulazioa errazteko. Otsailaren gan amaituko da horretarako epea.



Amurrioko hezkuntza-eskaintzaren berri eman die udalak herriko familiei, eta hainbat erraztasun eskaini dizkie. Aurrematrikula egiteko eskatu ohi den errolda-ziurtagiria igorri die etxera, familiak udal-letxera gerturatu behar izatea ekiditeko.

317 gutun bidali dituzte horretarako, tokiko erakundetik jakinarazi dutenez. “Gurasoak euskara eta euskal kul-

turarekiko jarrera ona izatera animatu nahi izan ditugu, seme-alabei euskara ikastea erraz diezaieten”, nabarmendu du Amurrioko alkate Josune Irabienek.

1.919 ikasle

1.919 ikasle daude matrikulatuak orain Amurrioko ikastetxeetan. Gehienek -% 79,89- ikasten dute D ereduan. Gai nontzekoak B ereduan daude.

HEZKUNTZA ERALDATZEN

Aresketa auzoa, 2
01470 Amurrio (Araba)
945890360
aresketaikastola@aresketaikastola.eus
www.aresketaikastola.eus

Ikastolan, zu, hura, zuek, haiek, gu, ni... denok gara GU.

ARESKEETA

IKASTOLA






La Milagrosa Ikastetxea

Eraiki gurekin zure etorkizuna



MATRIKULA
Urtarrilaren 29tik
otsailaren 9ra arte

B eta D ereduak
Hizkuntza Aniztasuna

0 - 16 urte

Heziketaren zutabeak

Metodologia Berriak
Ikaskuntza Kooperatiboa
Teknologia Berriak
Hizkuntzak
Aniztasunari Arreta
Baloreak

Zerbitzu anitzak
Ordutegi zabala

Eskolaz Kanpokoak

Ingelesa, Kirolak
Musika eta Dantza
Argazkilaritza, Xakea
JMV ...

La Milagrosa
Ikastetxea

Lezeagabide, 2
01400 Laudio
Tfnoa. 94.672.07.01



www.lamilagrosall.net

Antzinako Andra Mari

“Umeak susmopean egon dira historikoki, ez zirelako euren legeak ezagutzen”



RAFAEL CRISTOBAL BALDOR (BILBO, 1938) PSIKIATRA ETA “KONFIANTZAREN PEDAGOGIAREN” BULTZATZAILEA DA. HITZALDI IREKIA ESKAINIKO DU LAUDIO IKASTOLAN OTSAILAREN 7AN, 19:00ETAN.

“Konfiantzaren pedagogia” duzu hizpide. Zertan datza pedagogia mota hori?

Konfiantzaren pedagogia aurkikuntza izan da, zientzietan oinarrituta eginikoa. Pedagogia demokratikoa, ez litzatekeena norbanako baten gustu eta irizietan oinarrituko, baizik eta zientzietan.

Zientzietara jotzean konturatu nintzen umeengan konfiantza izan daitekeela, arroz edo artoan konfiantza izan daitekeen neurri berean. Baina horretarako beharrezkoa da umearen legeak ondo ezagutzea. Umearekiko konfiantza izan dezakezu baldin eta bere garapenaren legeak aplikatzen badituzu. Giza-umeak badu konplexutasuna, animalien munduko beste edozein izaki bizidunek izan dezakeen konplexutasuna baino handiagoa. Baina bere legeak hobeto ezagutzera bultzatu behar gaitu konplexutasun horrek.

Haurrek badute orduan berezko sen bat?

Noski. Konfiantzaren pedagogiak umeen senak hartzen ditu kontuan, haurrek egiten dituzten seinaleak interpretatuta. Modu horretan, guraso zein hezitzaileei ahalbidetzen die umea zientifikoki ezagutzea, egiten dituen seinaleak interpretatu eta egoki erantzuteko.

Umeak susmopean egon dira historikoki, ez zirelako euren le-

geak ezagutzen. Horregatik esaten zen esaldi hau: “La letra con sangre entra”. Hori ez da horrela, letra gustuaren bidez sartzen da. Haurrak badu ikasteko gogo, baina bere eritmoraregokitu behar zara.

“Oso garrantzitsua da umea irakasleekin etxekotzea. Umearen izeko-osabak bihurtu behar dira hezitzaileak”

Posiblea da horrelako pedagogia aplikatzea gaur egungo hezkuntza sisteman? Zer funtzio jakatu beharko lukete hezitzaile eta gurasoek?

Bateratu egin beharko lirateke familia eta eskola. Hori azpimarratu nahiko nuke. Oso garrantzitsua da umea irakasleekin etxekotzea. Umearen izeko-osabak bihurtu behar dira hezitzaileak. Etxearen luzapena bihurtu behar da eskola. Modu horretan haurrak ez du negar egingo gurasoengatik banatzen denean, eskolan ere senideekin egongo delako.

Elkarriketa osoa Aiaraldea.eus atarian irakurgai.

Ibilbide luze eta eskarmentu handiko ikastetxea

Ibilbide luze eta oparoa duen zentroa da Antzinako Andra Mari ikastetxea. Belaunaldiasko igaro dira bertatik, zentroa eskualdeko memoria kolektiboaren parte bihurtzeraino.

Hezkuntza eskaintza zabala du eskolak, 0 urtetik 18 urtera bitarteko fase guztiekin: Haurtzaindegia (7:30etatik aurrera), Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa. Zerbitzu osagarri ugari eskaintzen ditu baita ere: Guraso eskola, orientazio kabinetea, bizkortze goiztiarraren sistema...

Eskolako azpiegiturak hezkuntza prozesua aberastera dauka bideratuak: laborategia, ber-

tan prestatutako janaria eskaintzen duen jangela, kirol azpiegitura handiak... Heziketa digitalari garrantzi handia ematen diote, informazio eta komunikazio teknologiak ikasgelan sartuta.

Eleaniztasuna ardatz

Eredu hirueleduna erabiltzen dute ikastetxean, euskara erreferentziatzen hartuta betiere. EGA prestatzeko taldea dute, eta Cambridge azterketa-zentroarekin elkarlanean aritzen dira.

Oso ondo kokatua dago, gainera: tren geltokitik 5 minutura dago eta garraio zerbitzua du Orozkoko ikasleentzat.



ANTZINAKO ANDRA MARI IKASTETXEA
URDUÑA

ANTZINAKO ANDRA MARI IKASTETXEA

Foru plaza, 5
48460 Urduña/Orduña (Bizkaia)
Tfno. 945 38 48 30
secretaria@colegiojosefinos.com



0 - 18
urte

Haurtzaindegia / Haur Hezkuntza
Lehen Hezkuntza / DBH / Batxilergoa



Aurrematrikulazio prozesua, dataz-data

Astelehenean ireki zen hezkuntza zentro publiko eta itunpekoetan aurrematrikulazioa egiteko epea eta otsailaren 9an itxiko da. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzari eragiten die.

Astelehenean -urtarrilaren 29an- ireki zen eskualdeko ikastetxe publiko eta itunpekoetan Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo Bigarren Hezkuntza egiteko aurrematrikulazioa gauzatzeko epea.

Datorren asteko ostiralera arte -otsailak 9- egongo da hori egiteko epea. Otsailaren 20an argitaratuko dira eskatzaileen zerrendak, eta martxoaren 1ean publikatuko dira behin-behineko zerrendak. Bi asteko tarte egongo da erreklamazioak aurkezteko, martxoaren 14ra arte, eta hilaren 22an argitaratuko dira behin betiko zerrendak. Aurrematrikulazioan ondorengo hauek hartu beharko dute parte: 2 urteko gelan egon nahi dutenek edo ikaste-



Ikastetxe berri batera doazen guztiek bete beharko dute prozedura. Aiaraldea.eus

txe batera lehen aldiz sartu nahi dutenek, ikasketa-maila dena dela. Ikastetxe berean ikasturte

batetik bestera igarotzera doazenek, aldiz, ez dute prozesu honetan parte hartu beharko.